


# TUTOREARENTZAKO DOKUMENTUA

Lehen Hezkuntzako 4. maila

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Tutore agurgarria:

Ebaluazio Diagnostikoa 2011 abian dago eta ikasleei galde-sorta bat erantzutea eskatuko zaie.

### 1. Zertan datza galde-sorta hau?

Ikasleentzako galde-sortaren helburua familien gizarte-, ekonomia- eta kultura-mailari buruzko informazioa (jabetzak eta kultura-ondasunak, gurasoen ikasketak, lan egoera...) biltzea da eta, horrekin batera, familiaren beste ezaugarri batzuk (jatorria, familiako hizkuntza, egitura...). Ikastetxez kanpoko alderdi batzuei buruzko galderak ere egiten zaizkie eta, azkenik, ikastetxeari, ikasketekiko jarrerari eta arlo batzuetako emaitzei buruzko galdera batzuk.



### 2. Ikasturteko zein momentutan beteko dute ikasleek galde-sorta hau?

Ikasturte honetan galde-sorta ez da beteko, aurreko ikasturteetan bezala, probak egiten diren egun berean. Aurten ikasleek tutorearekin saio berezi batean beteko dute, probak ezarriko diren egunak baino lehen.

### 3. Zergatik ez da aplikatzen galde-sorta errendimendu probekin batera?

Aurten probak egiteko beharko den denbora pasa den ikasturtekoa baino luzeagoa izango delako eta, galde-sortaren bidez bilduko den informazioaren garrantzia dela eta, ikasleek erantzuteko beharko duten denbora, lasaitasuna eta tutorearen laguntza edukitzea derrigorrezkoa da.

### 4. Nola beteko da galde-sorta?

Ikasleek Interneten bidez erantzungo dute, horretarako espresuki egindako aplikazio informatikoaren bidez. Salbuespen moduan, aldezturik eskatutako ikastetxeek paperean erantzun ahal izango dute. Bestaldetik, galde-sorta betetzeko aukeratutako eguna heldu baino lehen, tutoreak galde-sortaren parte baten kopia (31. galderatik 38. galderara) banatuko du, etxean gurasoekin betetzeko.

### 5. Zergatik bidaltzen da etxera galde-sortaren parte bat gurasoekin betetzeko?

Esperientziaz badakigu kasu askotan ikasleak ez dakiela gurasoen ikasketa maila zein den, non egiten duten lan eta zer egiten duten lanean, ezta ikasle bera noiz hasi zen eskolan ere. Horrela ikasleek galdera horiek erantzun gabe uztea edota modu okerrean erantzutea saihestuko da.

### 6. Zenbat denbora beharko dute ikasleek galde-sorta betetzeko?

Gutxi gorabehera 60 minutu beharko dutela erantzuteko kalkulatu dugu, baina betetzeko denbora maila guztiak da.

**DENA DELA, OSO GARRANTZITSUA DA GALDERA GUZTIEI ERANTZUTEA.**

### 7. Nola beteko dituzte ikasleek etxetik ekarritako datuak galde-sortan?

Etxean betetako orriak ikasleek ikastetxean eduki beharko dituzte galde-sorta betetzen den egunean. Lehenengo 29 galderak bete ezker, ikasleek ekarritako paperean dauden erantzunak aplikazio informatikoan kopia beharko dituzte.

**KOMENIGARRIA LITZATEKE TUTOREAK IKASLEEI GOGORATZEA OSO GARRANTZITSUA DELA EKAR-TZEA EGUN HORRETAN GURASOekin BETETZEKO ETXERA ERAMAN ZITUZTEN ORRIALDEAK.**

### 8. Zein izango da tutorearen papera?

Egokia litzateke tutoreak ikasleei azaltzea galde-sorta nola erantzun behar duten. Horretarako, hasi baino lehen, galde-sortaren jarraibideak ozenki eta astiro irakur ditzake eta segidan, egon daitezkeen zalantzak argitu.

**A aukera.** Ordenagailuen bidez erantzungo duten ikasleentzat:

Galde-sorta honetan zuri, zure familiari, gelari, ikaskideei eta beste hainbat gauzari buruzko galderak erantzun beharko dituzu. Ez da azterketa bat. Ez dago erantzun zuzenik edo okerrik. Galderei ahalik eta ondoen erantzun besterik ez duzu egin behar.

Galdera gehienetan erantzun bakarra eman behar izango duzu, baina beste batzuetan, proposatzen diren artean, nahi duzun beste aukera dezakezu. Hori dela eta, bakoitza arreta handiz irakurtzea ezinbestekoa da.

Ikusiko duzunez, bi motatako galderak daude: zirkuluetan markatuz erantzuten direnak eta karratuetan markatuz erantzuten direnak.

Galdera gehienetan alternatiba batzuk eskaintzen dira eta zure ustez egokia dena hautatu beharko duzu; horretarako, dagokion zirkulu barruan arratoiarekin sakatu beharko duzu. Okertzen bazara edo aukera aldatu nahi baduzu, bestearen zirkulu gainean sakatu eta aurrekoa ezabatuko da, besterik ez.

Galdera multzo txiki batean alternatiba batzuk eskaintzen dira eta egokiak iruditzen zaizkizun beste aukera dezakezu. Horretarako dagozkien karratu barruan saguz sakatu behar duzu. Galdera hauetan, okertzen bazara edo aukera aldatu nahi baduzu, sakatu berriz gainean eta automatikoki ezabatuko da markatu zenuen aukera.

**B aukera.** Paperean erantzungo duten ikasleentzat:

Galde-sorta honetan zuri, zure familiari, gelari, ikaskideei eta beste hainbat gauzari buruzko galderak

erantzun beharko dituzu. Ez da azterketa bat. Ez dago erantzun zuzenik edo okerrrik. Galderei ahalik eta ondoen erantzun besterik ez duzu egin behar.

Galdera gehienetan erantzun bakarra eman behar izango duzu, baina beste batzuetan, proposatzen direnen artean, nahi duzun beste aukera dezakezu. Hori dela eta, bakoitza arreta handiz irakurtzea ezinbestekoa da.

Adibidea:	Ezer ez	Gutxi	Pixka bat	Nahiko	Asko
Gustuko al duzu kirola egitea?..	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Oker eginez gero, BETE EZAZU GUZTIZ hautatutako erantzuna eta <input checked="" type="checkbox"/> baten bidez markatu aukera berria.					
Ezer ez	Gutxi	Pixka bat	Nahiko	Asko	
Gustuko al duzu kirola egitea?..	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

### 9. Tutoreak lagundu ahal die ikasleei galde-sorta erantzuten?

Galde-sorta, berez, ez da Ebaluazio Diagnostikoko proba bat. Beraz, **tutoreak ikasleei galderak erantzuten LAGUNDU AHAL die**. Are gehiago, zalantzak galdetzerantz animatzea komenigarria litzateke. Helburua informazio fidagarria eta ahalik eta osatuena lortzea da. Horretarako beraren laguntza beharrezkoa izango da.

### 10. Galde-sortaren zenbait galderei buruzko oharra:

#### 6. galdera:

Galdera hau **bakarrik** beteko du ikaslea Euskal Herritik kanpo jai bada. Hain zuzen ere, 5. galderan B edo C aukera bete badu.

#### 24. galdera:

Galdera honetan **bakarrik** egin nahiko luketen ikasketa mailarik altuena adierazi beharko dute. Dena den, ordenagailuz egitekotan erantzun bakarra jartzeko aukera izango dute.

**MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK**